DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Finantzak
Ijentea, 1 | Tel. 900714033 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzarra
Junta de Gobierno Local
Ogasun batzordea
Comisión de Hacienda
2024/07/23
Zinegotzi idazkaria / Concejal-a secretario-a
Miren Nekane Arzallus Iturriza

## UDALBATZARI

**Urez hornitzeko zerbitzua eskaintzeari dagozkion tasak arautzeko zerga ordenantza.**

1.- Ordenantzaren eranskinean, 3) epigrafean, ur-hornidura: kuota aldakorra, kontzeptu berri bat sartzea proposatzen da, erabilera berri batetarako.

Gaur egun, urez hornitzeko zerbitzua eskaintzeari dagozkion tasak arautzeko zerga ordenantzak erabilera bereizi gisa jasotzen ditu honako hauek: Etxekoa, jarduerak oro har, ostalaritzako jarduerak, eraikuntza-jarduerak, ureztatzea eta igerilekuak finka partikularretan.

Horietako bakoitzari aplikatzen zaion kuota aldakorra desberdina da.

Komenigarritzat jotzen da nekazaritza-jardueretarako tasa berri bat onestea, gainerako jarduera-erabileretatik bereizitako tratamendu fiskala ahalbidetzeko.

Uraren erabilera Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritza Ustiategien Erregistroan alta emanda dauden nekazaritza-ustiategietan gertatzen denean tasa hori aplikatzea proposatzen da, erregistro horretan agertzen den ustiategiaren tamaina nekazaritzako lan-unitate baten berdina edo handiagoa denean.

Erabilera horretarako proposatutako tasa 0,65€/ m3-koa izango da, oro har, jarduera orokorretarako zehaztutakoa baina apalagoa.

Ordenantzaren eranskinean, 3) epigrafean, ur-hornidura: kuota aldakorra, kontzeptu berri bat sartzea proposatzen da, erabilera berrirako, honako hau jasoko duena:

*Nekazaritzarako erabilera: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritza Ustiategien Erregistroan alta emanda dauden nekazaritza-ustiategiak, baldin eta erregistro horretan agertzen den ustiategiaren tamaina nekazaritzako lan-unitate batekoa edo handiagoa bada... 0,65 €/ m3*

2.- Tasak igotzea:

Gipuzkoako toki-ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 24. artikuluan, tasen zenbateko zenbatetsiaren guztizko mugari buruzkoan,

## AL AYUNTAMIENTO PLENO

**Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por la prestación de servicios para el suministro de agua.**

1.- Modificación del anexo de la Ordenanza epígrafe 3) suministro de agua: cuota variable, un nuevo concepto para un nuevo uso.

Actualmente la Ordenanza Fiscal de las Tasas por prestación de los servicios para el Suministro de Agua, recoge como usos diferenciados los siguientes: Doméstico, actividades en general, actividades de Hostelería, actividades de construcción, riego y piscinas en fincas particulares.

La cuota variable aplicada a cada una de ellas es diferente.

Se considera conveniente aprobar una nueva tasa para el uso de actividades agrarias que posibilite un tratamiento fiscal diferenciado del resto de usos de actividad.

Se propone que dicha tasa se aplique cuando el uso del agua se produzca en explotaciones agrarias que figuren dadas de alta en el Registro de Explotaciones Agrarias del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa cuando el tamaño de explotación que figure en ese Registro sea igual o superior a una Unidad de Trabajo Agrario.

La tasa propuesta para dicho uso se fija en 0,65€/m3 una tasa inferior al uso de actividades en general.

Se propone incluir en el anexo de la Ordenanza epígrafe 3) suministro de agua: cuota variable, un nuevo concepto para el nuevo uso que contenga este literal:

*Uso actividad agraria: Explotaciones agrarias que figuren dadas de alta en el Registro de Explotaciones Agrarias del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa cuando el tamaño de explotación que figure en ese Registro sea igual o superior a una Unidad de Trabajo Agrario...0,65€/ $m^3$*

2.- Incremento de las tasas:

En relación con lo dispuesto en el artículo 24 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, sobre el límite

xedatzen duenari dagokionez, administrazio-espedientean jasota daude udal honek eman beharreko zerbitzuen kostuei buruzko txosten tekniko-ekonomikoak.

Diru-sarreren eta gastuen artean dagoen aldea kontuan hartuta, eta defizit hori murrizte aldera, udal-gobernuak tasa horietan % 1eko igoera aplikatzea proposatzen du.

Aurreko guztia oinarri hartuta, eta Finantza Zuzendaritzak proposatuta, **PERTSONAK, EKONOMIA ETA AURREKONTUA KUDEATZEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIAK** Udalbatzari proposatzen dio, Ogasun Batzordearen txostena jaso ondoren, honako **ERABAKI** hauek har ditzala:

**LEHENENGOA:** Ur-horniduraren tasak arautzen dituen zerga-ordenantzako eranskinaren aldaketak, azalpen-zatiaren lehenengo eta bigarrengo puntuan zehaztuta dagoena, onestea.

**HIRUGARRENA:** 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jarriko den erabaki hau izapidetzea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera. Era berean, erabakia behin-behinekoa izango dela joko da eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko bihurtuko dela.

total del importe estimado de las tasas, constan en el expediente administrativo los informes técnico-económicos sobre los costes de los servicios a prestar por este Ayuntamiento.

Habida cuenta de la diferencia existente entre ingresos y gastos y con objeto de reducir este déficit, el gobierno municipal propone la aplicación de un incremento del 1% en estas tasas.

En base a cuanto antecede, y a propuesta de la Dirección Financiera, **EL CONCEJAL DELEGADO DE PERSONAS, GESTIÓN ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA** propone al Ayuntamiento Pleno que, previo informe de la Comisión de Hacienda, adopte los siguientes **ACUERDOS:**

**PRIMERO:** Aprobar las modificaciones del Anexo a la Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por el suministro de agua descrita en el punto primero y segundo de la parte expositiva.

**TERCERO:** Tramitar este acuerdo, a regir desde el 1 de enero del año 2025, conforme al procedimiento establecido en el artículo 16 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

Donostian, sinadurako datan

En San Sebastián, a fecha de la firma

ZERGAK KUDEATZEKO ETA IKUSKATZEKO ATALAREN BURUA
Izpta./Fdo. Loreto Sola Antoñanzas

FINANTZA ZUZENDARIA
Izpta./Fdo. Zigor Eguia Lejardi

PERTSONAK, EKONOMIA ETA AURREKONTUA KUDEATZEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
Izpta/Fdo. Kerman Orbegozo Uribe

Kontuhartzailetza eta Kontabilitatea
Intervención y Contabilidad
Erreferentzia
Referencia
Ikusia
Visto

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Loreto Sola (18/07/2024 09:51 CEST), Zigor Eguia Lejardi (18/07/2024 09:53 CEST)
Kerman Orbegozo Uribe (18/07/2024 10:37 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : KXRZ-1E5B-YIO1-ZBGC